



# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


## EAEko ekonomia %2,1 haziko da 2025ean

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2025EKO HAZKUNDEA

%2,1




Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Zuzendaritzak 2025-2026 aldirako aurreikuspen makroekonomikoak eguneratu ditu, eta hazkunde igurikimenean hobekuntza txiki bat islatu du. Kalkuluen arabera, BPGA %2,1 haziko da 2025ean eta %1,8, berriz, 2026an, eta horrek esan nahi du bi urteetan hamarren bat igo dela oraingo aurreikuspena aurreko zenbatespenekin alderatuta.

Hazkundeak barne eskariak bultzatuta jarraituko du, 2025ean %2,3ko hazkunde tasa izatea aurreikusten baita, kontsumo pribatuaren bilakaera

positiboak lagunduta, nahiz eta inflazioa oraindik ez den ezarri zen helbururaino jaitsi. Datuak kalkulatzeko orduan duela gutxi egin den berrikuspenak erakusten du familien gastua hasieran aurreikusitakoa baino dinamikoagoa izan dela, eta horrek joera hori sendotzen laguntzen du. Hala eta guztiz ere, kanpoko eskariak ziurgabetasuna erakusten jarraitzen du, eta hazkundeari egiten dion ekarpena negatiboa izango da aurreikuspenaren bi urteetan, industriaren ahuleziak eta merkataritza oztupo berriak ezartzeko aukerak bultzatuta.


### GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreka, industria %1,1 haziko da 2025ean, kanpo eskariaren ahuleziak eraginda, baina 2026an suspertuko da. Eraikuntzak %2,7 egingo du gora 2025ean, etxebizitzaren eskaerak eta finantza inguruneak lagunduta, eta 2026an, berriz, erritmoa %2,2ra apalduko da. Zerbitzuek gidatuko dute hazkundera 2025ean, %2,3ko hazkunde tasa batekin, eta datorren urtean %1,7ra motelduko dira.

Enpleguak hazten jarraituko du, erritmo motelagoan bada ere, demografia eta migrazioen fluxuak funtsezko faktore direla. 2025ean, lanpostuen kopurua %1,5 handituko da, hau da, 15.000 enplegu garbi sortuko dira, eta 2026an, berriz, erritmoa %1,2ra motelduko da. Langabezia tasa %7tik beherakoa izango da eta egonkor mantenduko da.


## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.